

# ENRIKE GOGOAN

*Doinua: "Markesaren alaba"*

1

Egun on dinotsogu  
bihotzez alkarri,  
gaur hemen alkartzea  
ez al da pozgarri?  
Gure Enrikek gaitu  
honuntza ekarri,  
Mesa santua danoi  
bekigu ongarri.

2

Jaungoikoa besterik  
ez dago santurik,  
gaur bere izenean  
gagoz alkarturik.  
Jesus geugaz dogula  
gagoz sinisturik,  
grazi hau ordaintzeko  
ez dago dirurik.

3

Danok gogoan dogu  
Enrike laguna,  
hau bai gizon euskaldun  
eta fededuna!  
Bihotzean fedea  
buruan zentzuna,  
ez da errez betetzen  
beraren hutsuna.

4

Arpegiz argia ta  
bihotzez apala,  
umore onekoa  
ta eskuzabala.  
Iribarre gozoa  
ta gizon formala,  
holako asko Jaunak  
bialdu daiala.

5

Zintzoa izan arren  
hobea izan nahi,  
gero ta beteago  
pozaren pozez blai.  
Bizian Gorak deitu,  
berak erantzun: BAI,  
azkenerate ekin  
ta Jesusen jarrai.

6

Enriken izenean  
batu Erletxera  
eta Meza santua  
kristinau legera.  
Jesusi jarraituaz  
jo ta beti aurrera,  
barriz alkartu arte  
zeruan batera.

A.Martzel